



Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxa

PROTOKOLOAREN EZTABAIDEN ONDORIOAK

37 HERRIK PARTE HARTU
DUTE
GUZTIRA 500 EMAKUMEK
PARTE HARTU DUTE

EZTABAIDEN HELBURUA:

Protokoloaren aurkezpena eta lanketa (ekarpenak jasotzen dira, zein baliabide, oztupo dituzten) eta sistemarteko **indarkeriaren inguruko hausnarketa** egiten da eztabaidetan.

EUSKARRIAK:

Euskarri berriak sortu ditugu: protokolo luze bat (teoria garatuarekin) eta eskuragarriagoa den protokolo laburtu bat; euskaraz, gaztelera eta frantsesez. **Irakurketa erreza formatuan** osatu dugu protokoloa euskaraz eta gaztelera, irakurtzeko zailtasunak dituzten emakumeentzat, hizkuntza ikasten dabilentzat....

Protokoloa zeinu hizkuntzan ere sortu dugu, gaztelera eta euskaraz.

ONDORIOAK:

Indarkeria transistemikoaren **kontzeptua**:

- Sistemarteko indarkeriaren kontzeptuaren inguruan **beharrezko kontzeptua** dela ondorioztatu da. Pedagogiaren beharra dago hau ikusgarria izan dadin.
- Gure **diskurtsoetan ikusgarri egin** behar dugu, eta mugimendu feminista izan behar da hau kontzeptualizatzen duena.
- Kontzeptuaren erabilerarekin hainbat duda sortu dira, batez ere emakume subjektuaren ezaugarritzearekin batera datorrena, borroka sektorializatzearen arriskua ikusten da eta baita diskurtso horrekin batera estigmatizazio batean sartu ahal garela.
- Hala ere, sistema ezberdinek gure gain duten zapalkuntzak azalertzeko **diskurtsoan aurrera pauso bat ematea legez irudikatzen da eta horretan sakondu behar dugula.**

Protokoloari ekarpenak:

- Protokoloak orokorrean azteptazio handiarekin hartu izan da. Ekarpentzen hizkuntzaren erabilerarekin lotuak izan dira gehienetan.
- Nabarmena izan da **herri txikietako edo hirietako egoeraren arteko aldea**. Errealitate oso anitzak dira eta protokoloaren erabilpenaren eztabaidan nabaria izan da.
- Herri ia guztietan aliatuak antzekoak ziren; herri mugimenduko kideak, indarkeriaren gaien inguruko elkarteak... Baina udalarekiko harremana izan da gehien aldatu dena. Herri gehienetan mugimendu feministak darama protokoloaren ardura eta erantzunaren erreferentzialitatea; hala ere, kasu batzuetan protokoloaren aktibazioa instituzioek hartu dute bere gain eta mugimendu feministaren erreferentzialitatea oztopatu dute.
- Herri eta hiri gehienetan; **koordinazioaren inguruko kezka** azaldu dira eta mugimendu feministak kolektibotasunean erantzun bat ematearen garrantzia. Legitimitatea eta lidergotza mugimendu feministak izan behar duela eta askotan ez dela horra izaten. Erantzunen birplanteamendua, normalizazioaren erori gara eta deserosotasunak bilatzeko unea heldu dela sentitzen da orokorrean.
- Ardura sakona dago mugimendu feministaren barnean batez ere eraso sexistei dagokionez. Euskal Herriko mugimendu feministak ezin dio aurre egin jendartean dauden eraso guztiei eta ardura hau kolektiboa dela ezagutzera eramateko bitarteko eta eztabaidak sortu behar direla ondorioztatu da.